



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko agorrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, agorrilaren lauan, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, HEGUY Antton, IRIART Jean Claude.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 29a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 29a

3. ERABAKIA: HERRIKO LANGILE BATEK MANTENU LANEN EGITEKO AITZINATU GASTUEN ITZULTZEA (7.1 nomenklatura: Aurrekontuko erabakiak)

Auzapezak zehaztu du herriko langile batek lokalen mantenurako materiala erosi duela Herriarentzat.

Zehaztu du Germaine ETCHEGARAY andereak bere diruz 58.49 € ordaindu dituela.

Herri Biltzarrari proposatu dio langileari zenbateko horren itzultzea, ordaindu duen fakturaren arabera.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU, Germaine ETCHEGARAY andereari 58.49 € itzultzea herriaren konturako egin duen mantenu materialaren erosteko gastuarentzat.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko agorrilaren 4an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/08/10an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/08/10an.